## EZOHIKO BILTZAR NAZIONALAREN DEIALDIAREN JAKINARAZPENA

Tokiko koordinatzaile agurgarria:

Jakinarazten dizugu Gasteizko 6 zenbakiko epaitegiak 263/2022 zenbakiko autoaren bidez hartutako kautelazko neurria dela eta, 2017ko Kongresuaren ondoren aukeratutako barne-karguak behin-behinean indarrean daudela.

Gutun honen bidez jakinarazten dizugu, halaber, irailaren 21ean egindako Nazio Batzarrean hartu zen Ezohiko Biltzar Nazionala deitzeko erabakia, afiliatuek alderdiaren aurka sustatutako prozesu judizialek behartutako zuzendaritzaren iragankortasun-egoera ikusita. (Estatutuen 34, 35, 36 eta 42 artikuluak)

1.- Tokia: BEC (Barakaldo)

2.- Data: 2022ko azaroaren 19-20

3.- Formatua: Presentziala

4.- Eztabaidarako txostenak: Txosten Politikoa eta Estatutu Txostena

5.- Karguen hautaketa

6.- 2022ko urriaren 3rako batzorde prestatzailetik ponentziak, zuzenketak aurkezteko eredua (soilik eredu horretan eta formatu digitalean onartuko dira), tokiko batzarretan konpromisario izateko hautagaitza aurkezteko formularioa eta akta jasotzeko eredua bidaliko dira posta

## COMUNICACIÓN CONVOCATORIA CONGRESO NACIONAL EXTRAORDINARIO

Estimado/a coordinador/a local:

Te comunicamos que debido a la medida cautelar adoptada por el juzgado de Vitoria-Gasteiz nº 6 mediante auto nº 263/2022, los cargos internos elegidos tras el Congreso de 2017 se encuentran provisionalmente vigentes.

Mediante la presente te comunicamos también el acuerdo de convocar el Congreso Nacional Extraordinario que se adoptó en la Asamblea Nacional celebrada el 21 de septiembre, ante la situación de transitoriedad de la dirección forzada por los procesos judiciales promovidos por afiliadas/os contra el partido. (artículos 34, 35, 36 y 42 de los Estatutos)

1.- Lugar: BEC (Barakaldo)

2.- Fecha: 19-20 de noviembre de 2022

3.- Formato: presencial

4.- Ponencias a debatir: Ponencia Política y Ponencia de Estatutos.

5.- Elección de cargos.

6.- Para el 3 de octubre de 2022 se enviarán desde la comisión preparatoria por email las ponencias, el modelo para presentar enmiendas (que solo se admitirán en este modelo y formato digital), formulario para presentar candidatura a

elektronikoz. Dokumentazio hori lurraldeetako egoitzetan eta web-orrian ere egongo da eskuragarri.

http://www.euskoalkartasuna.eus/ezohiko-biltzar-nazionala/

(Antolakuntza Araudiaren 1, 2, 4, 6, 7 eta 8 artikuluak)

7.- Tokiko batzarrak deitzeko gehienezko epea: 2022ko urriaren 21a

- Ponentziak eztabaidatzeko eta biltzarkideak hautatzeko tokiko batzarrak.

8.- Tokiko batzarraren data 2022ko urriaren 10a baino lehen jakinarazi beharko zaio Batzorde Prestatzaileari.

9.- Biltzarkideeen kalkulurako datu-basea 2022ko irailaren 19an itxi zen.

10.- Urriaren 6ra arte, afiliatu bakoitzak erroldan sartuta dagoela egiaztatu ahal izango du, eta, hala badagokio, erreklamazio-idazki bat aurkeztu ahal izango du. Idazki hori pertsonalki bidaliko du, NANaren kopiarekin batera, kongresua@euskoalkartasuna.eus helbide elektronikora.

11.- Batzar Nazionalak onartutako ratioaren arabera, proportzioa 1 da 8 afiliatu bakoitzeko. Zure tokiko erakundeak aukeratu behar dituen biltzarkideen kopurua, behin betiko erroldarekin batera, urriaren 6tik aurrera bidaliko zaizu, erreklamazio-epea amaitu ondoren.

12.- 2022ko urriaren 31rako, gehienez ere, kongresua@euskoalkartasuna.eus Kongresuko posta-kontura bidali behar da:

- Onartutako zuzenketak eta ordezko testuak, bozketa bakoitzaren emaitza osoarekin

- Biltzarkide izateko hautatuak eta aldez aurretik sinatutako onarpenak, ze txostenetan parte hartuko duten

compromisaria/o en las asambleas locales, así como el modelo para recoger el acta. Documentación que también estará disponible en las sedes territoriales y en la página web del congreso http://www.euskoalkartasuna.eus/es/congreso-nacional-extraordinario/

(Artículos 1, 2, 4, 6, 7 y 8 del Reglamento de Organización)

7.- Plazo máximo para que convoques tu respectiva asamblea local: 21 de octubre de 2022

- Asambleas locales en las que debatir las ponencias y elegir compromisarios/as.

8.- Deberás comunicar la fecha de celebración de la asamblea local a la Comisión Preparatoria antes del 10 de octubre de 2022.

.9 - La base de datos para el cálculo de compromisarios se cerró el día 19 de septiembre de 2022

10.- Hasta el 6 de octubre, cada afiliada/o podrá comprobar su inclusión en el censo, y en su caso si lo considera oportuno presentar un escrito de reclamación, enviándolo personalmente con su copia del DNI a la dirección de email kongresua@euskoalkartasuna.eus.

11.- Conforme al ratio aprobado por la Asamblea Nacional, la proporción es de 1 por cada 8 afiliadas/os. El número de compromisarios/as que corresponde elegir a tu organización local, junto con el censo definitivo, se te enviará a partir del 6 de octubre, tras la finalización del plazo de reclamaciones.

12.- Para el día 31 de octubre de 2022 como plazo máximo, debes remitir a la cuenta de correo del Congreso kongresua@euskoalkartasuna.eus:

- Las enmiendas aprobadas y textos alternativos, con el resultado completo

zehaztuz.

- Bozketaren emaitza osoa, baldin eta hautatutako konpromisarioren batek Kongresura joaterik ez badu eta boto gehien lortu dituen hurrengoari jakinarazi behar bazaio.

- Akta sinatua eta eman dizugun tokiko batzarraren jatorrizko errolda/sinadura-orria, zure batzarreko mahaiari eman diezaiozun. Parte hartu duen afiliatu bakoitzaren sinadurarekin itzuli beharko diguzu.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

de cada votación.

- Los y las electos/as como compromisarias/os y sus aceptaciones previas firmadas, especificando en que ponencia participarán.

- El resultado completo de la votación realizada por si algún/a compromisario/a elegido/a no pudiera acudir al Congreso y hubiera que avisar al siguiente más votado.

- El acta firmada y el censo original/hoja de firmas de la asamblea local que te hayamos entregado para que lo facilites a la Mesa de tu asamblea, y que deberás devolvernos con la firma de cada afiliado/a que haya participado.

Sin otro particular, recibe un saludo.

**2022ko Ez-Ohiko Biltzar Nazionalerako Batzorde Prestatzailea**

**Comisión Preparatoria del Congreso Nacional Extraordinario de 2022**